



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

**JON GIL BELTZA JAUNAK, JON GIL BELTZA, LICENCIADO EN
ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUNA, DERECHO, SECRETARIO-
ASTEASUKO UDALEKO BITARTEKO INTERVENTOR INTERINO DEL
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK, EXCMO. AYUNTAMIENTO DE
ASTEASU,**

ZIURTATZEN DU:

CERTIFICA:

AFAren 206 atalaren salbuespenarekin: Udalbatzak, 2020ko maiatzaren 19ko bilkuran, beste gai batzuren artean, ondorengo erabakia hartu zuela:

Que, con la salvedad del art. 206 del R.O.F., el Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada con fecha 19 de mayo de 2020, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

2019ko Aurrekontu Orokorren likidazioa: egonkortasuna eta gastuaren araua ez betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz; komunikazioa egitea Udalbatzarrari.

Udaleko Bitarteko Idazkari Kontu hartzaileak hitza hartu du. 2020/02/26ko Alkatetza Dekretuaren bidez udal honen 2019ko aurrekontuaren likidazioa onartu zen; espediente horretan, likidazioari buruzko Bitarteko Idazkari Kontu hartzaileak egindako txostenaren berri emango dio Udalbatzarrari. Honela dio:

**“TXOSTENA
FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN AZTERKETA ETA EBALUAKETA**

AURREKARIAK

2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauak, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duenak, 5. artikuluan xedatzen du, aurrekontu egonkortasunaren helburua ez betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatzen bada, plan ekonomiko-finantzarioaren ordean, entitateko udalbatzarrari komunikazioa helaraziko zaiola, Kontu-hartzaileak entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txostenarekin batera.

Gipuzkoako toki entitateek 2019. ekitaldirako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko jarraitu beharreko erregelak onartzen dituen Jarraibidearen 3. erregelak ezartzen du gastuaren araua ez betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordeztuz, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hiru garren apartatua aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaiola Udalbatzarrari.

Aipatutako xedapenek aurreikusitakoari erantzuteko egin da honako txosten hau.

ARAUDI APLIKAGARRIA

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2018ko azaroaren 20koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN AZTERKETA ETA EBALUAKETA

2019. ekitaldiko aurrekontuan kreditu aldaketak egin ziren diruzaintzako gerakinarekin finantzatu zirenak. Likidazio espedientearen arabera, obligazio hauek finantzatu ziren diruzaintzako gerakinarekin:



Diruzaintza gerakinarekin finantzatutako obligazioak

PARTIDA	AZALPENA	B.BET.KRED. DGrakin FINAN	OBL.ONART. DGrakin FINAN.
0000.211.920.00.01	UDAL ERAIKUNTZEN MANTENIMENDUA	9.446,46	0,00
0000.227.920.00.07	UDAL AHOLKULARIEN ORDAINKETAK	3.025,00	968,00
0000.481.340.00.02	AIZTONDO KLASIKA BATZORDEA	555,54	555,54
0000.481.340.00.03	HERRI KIROLAK	300,00	300,00
0000.600.153.00.01	INBERTSIOA LURRETAN	106.000,00	102.586,42
0000.601.150.00.01	AZPIEGITURA ETA URBANIZAZIOA	735.917,13	731.040,66
GUZTIRA		855.244,13	835.450,62

Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako obligazio horiek eragin zuten aurrekontuaren likidazioan ez betetzea aurrekontu egonkortasunaren helburua edota gastuaren araua.

Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako inbertsioetarako obligazio horiek, gastu puntaletarako izan direnez (plazaren birmoldatzea eta lurren desjabetzak), etorkizunean ez du eraginik izango gastu finkoa handitzea. Gastu arrunten kasuen, ekonomikoki eragin txikia izanik, hurrengo ekitaldietan ikusiko da finkotzen den ala ez baina horrela izango balitz ere ez luke eragin handirik izango.

Bestalde, entitatearen aurrezki garbia honakoa izan da, aurreko urteko likidazioan eta aurtengo aurrekontuan:

Aurrezki garbia

	Aurreko urteko likidazioan	Uneko aurrekontuan
Sarrera arruntak	2.308.882,55	2.264.230,40
Gastu arruntak	1.792.254,36	1.826.596,36
Aurrezki garbia	516.628,19	437.634,04

Gainera, ezusteko eragiketarik izan ezean, goian aipatutako gastu finko berri horretaz gain, sarrera arruntak eta gainerako gastu arruntak iraunkorrak izango dira, ez baita espero hurrengo ekitaldietan gorabehera handirik gertatzerik horietan.

Ondorioz, entitatearen aurrezki garbia nahikoa da aurreko urtean diruzaintzako gerakinarekin finantzaturako obligazioek eragindako gastu finko handiagoari aurre egin ahal izateko hurrengo ekitaldietan.

ONDORIOAK

Aurreko urteko exekuzioa, uneko aurrekontua eta hurrengo urteetarako aurreikuspenak ikusirik, ezusteko eragiketarik gertatu ezean, bermatuta dago entitatearen finantza iraunkortasuna datozen ekitaldietarako.

Asteasun, 2020ko martxoaren 6an
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA”

Beraz, Udalbatzarra udal honen 2019ko aurrekontuaren likidazioaren jakinaren gainean geratu da, eta aipatu likidazioari buruzko Bitarteko Idazkari Kontu hartzaileak egindako txostena helarazi zaio. Segidan, hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasuneko sailari jakinaraziko zaio.

Eta horrela jasota gera dadin, eta behar Y para que así conste, y surta los efectos
diren ondorioetarako, honako ziurtagiria oportunos, emito el presente certificado,
luzatzen dut, Alkate Andrearen con el visto bueno de la Sra. Alcaldesa,
oniritziarekin, Asteasun, 2020ko en Asteasu, a 29 de mayo de 2020.
maiatzaren 29an.

O.I. / VºBº

ALKATE ANDREA / LA ALCALDESA